BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3943

AGINDUA, 2013ko irailaren 3koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzeko dena.

Ertzaintzako lanpostuen zerrenda onartzeko Herrizaingoko sailburuaren 1997ko abenduaren 31ko Agindua hainbat alditan aldatu da, besteak beste, lanpostuen zerrenda gertatu diren egitura aldaketetara egokitzeko.

Ertzaintzako lanpostuen zerrendak aldaketa asko jasan dituela ikusirik, 2013ko ekainaren 26ko Aginduaren bidez (2013-07-02ko EHAA, 125. zk.) Ertzaintzaren egiturako lanpostuen zerrenda osoa berriz argitaratu zen, ordura arte onartutako eta argitaratutako aldaketa guztien emaitza jasotzen duena.

Agindu honen helburua da Ertzaintzaren lanpostuen zerrenda berriro aldatzea, Indartze Brigadaren lanpostu guztiak kenduz, aipatutako 2013ko ekainaren 26ko Aginduak laguntzeko postuak sortu baitzituen Brigada Mugikorraren unitatean.

Horiek horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Ertzaintzaren Kontseiluak txostena eman dutelarik, eta Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legearen 103. artikuluan aurreikusitako mahaian negoziatu eta gero, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanpostuak kentzea.

I. eranskinean zerrendatutako lanpostuak kentzen dira.

2. artikulua.– Dotazioak sortzea.

II. eranskinean adierazitako lanpostuan dotazioak sortzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 3a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

I. ERANSKINA

LANPOSTUAK KENTZEA

Lanpostua			Eskala/Kategoria erreserba	Udalerria	Ertzain-kopurua	Homidura sistema	2. jardu-era	Baldintzak						BOB	Ded. erre.	Oha-rrak
								Espez.	Hizkuntza-eskakizuna			Iraupena				
Kod.	Uni.	Izena							Eskaki-zuna	Derrigortasun data	Dot. zk.	Gutxie-nekoa	Gehienek oa			
410	Indartzeko Brigada Unitatea															
41001		Unitateko burua	Komisario	Iurreta	1	IA			2					4	DO	
41002		Unidateko buruordea	Komisariordea	Iurreta	1	IA			2					5	DO	
41003		Indartzeko Brigada	Ofizial	Iurreta	1	ML			1					7		
41004		Indartzeko Brigada	Ofizialordea	Iurreta	1	ML			1					11		
41005		Indartzeko Brigada	Agente lehena	Iurreta	1	ML			1					11		
41006		Indartzeko Brigada	Agentea	Iurreta	1	ML			1					11		

II. ERANSKINA

DOTAZIOAK SORTZEA

Lanpostua			Eskala/Kategoria erreserba	Udalerria	Ertzain-kopurua	Homidura-sistema	2. jarduera	Baldintzak							BOB	Ded. erre.	Oharrak
										Hizkuntza- eskakizuna			Iraupena				
Kodea.	Unitatea.	Izena						Espec.	Z-E. Tit.	Eskakizuna	Derrigor-tasun-data	Dot. zk.	Gutxiene koa	Gehienekoa			
401	Brigada Mugikorraren Unitatea																
40113		TMZri laguntza emateko agentea	Agente	Iurreta	6	ML		TMZ		1					8	LF	